

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

251. zenbakia

Data 2008-12-31

40779 orria

3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK GFA-OGASUNA ETA FINANTZAK 1158/2008 Foru Agindua, abenduaren 29koa.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

1.158/2008 FORU AGINDUA, abenduaren 29koa, 2008ko otsailaren 6ko 154/08 Foru Agindua, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren entitate taldearen erregimen bereziko hileko aitorten-likidazioaren 322 eredia (banakako eredia) eta hileko aitorten-likidazioaren 353 eredia (eredu metatua) onartzekoa, aldatzen duena.

Otsailaren 6ko 154/2008 Foru Aginduaren bidez, Balio Erantsiaren gaineko Zergako entitate taldeen erregimen bereziari dagozkion bi eredu onartu ziren: Hileko aitorten-likidazioaren 322 eredia (banakako eredia) eta hileko aitorten-likidazioaren 353 eredia (eredu metatua).

Alde batetik, aitorten eta autolikidazioak telematikoki aurkeztera behartutakoak aldatu ditu azaroaren 18ko 1002/2008 Foru Aginduak, zergapeko jakin batzuk zerga aitortenak eta autolikidazioak sinadura elektronikoko balioztatua erabiliz telematikoki igortzera behartu eta horren prozedura finkatzen duenak; bestetik, Balio Erantsiaren gaineko Zergan likidazioaldi bakoitza amaitzean zergadunaren alde dagoen saldoaren itzulketa eskatzeko aukera duten subjektu pasiboak aldatu dira. Bi aldaketa horiek direla-eta, beharrezkoa da 154/2008 Foru Agindua nahiz 353 eredia aldatzea, aldaketa horiek eraginda geratu diren neurrian.

Horiek horrela, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. 154/2008 Foru Agindua aldatzea.

Honela aldatzen da 2008ko otsailaren 6ko 154/08 Foru Agindua, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren entitate taldearen erregimen bereziko hileko aitorten-likidazioaren 322 eredia (banakako eredia) eta hileko aitorten-likidazioaren 353 eredia (eredu metatua) onartzen dituen:

Bat. 2. artikulua 1. apartatua aipatzen den II. eranskina aldatzen da. Horren ordezkoa, foru agindu honen eranskina izango da.

Bi. Honela idatzita geratu da 3. artikulua:

«3. artikulua. 322 eta 353 ereduak aurkezteko modua eta lekua.

Bat. 322 eredua paperean edo telematikoki aurkeztu behar da. Nolanahi ere, derrigorrezkoa izango da aipatu eredua telematikoki sinadura elektroniko balioztatua erabilia aurkeztea, 2008ko azaroaren 18ko 1002/08 Foru Aginduak, zergapeko jakin batzuk zerga aitortenak eta autolikidazioak sinadura elektroniko balioztatua erabiliz telematikoki igortzera behartu eta horren prozedura finkatzen duenak, 1.1 artikuluan jasotako kasuan, foru agindu horrek jasotako prozedurari jarraituz.

322 eredua leku hauetako batean aurkeztu daiteke: Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan; 2006ko abuztuaren 2ko 38/06 Foru Dekretuaren bidez onartutako Zergabilketa Erregelamenduak jasotakoari jarraituz bilketan laguntzeko baimenduta dauden entitateetako batean (bankuak, aurrezki kutxak edo kreditu kooperatibak); zerga bulegoetan.

Bi. 353 eredua telematikoki aurkeztu behar da, foru agindu honetan eta 1002/2008 Foru Aginduan jasotakoaren arabera.

Hiru. 353 ereduko aitorten-likidazioaren emaitza ordaintzekoa edo itzultzekoa denean, banku helbideratzearen bidez ordaindu edo itzuliko da zergapekoak horretarako adierazitako kontuan.»

Xedapen iragankorra.

Aitortenak telematikoki sinadura elektroniko balioztatua erabiliz 1.002/2008 Foru Agindua indarrean jarri arte aurkeztera behartuta dauden subjektuak.

Harik eta azaroaren 18ko 1.002/2008 Foru Aginduak, zergapeko jakin batzuk zerga aitortenak eta autolikidazioak sinadura elektroniko balioztatua erabiliz telematikoki igortzera behartu eta horren prozedura finkatzen duenak, ondorioak izan arte, Gipuzkoako Foru Aldundian 2007ko ekitaldiagatik aurkeztutako 190 ereduan lan etekinen abonak direla-eta aitortuen 25 erregistro edo gehiago zerrendatu dituzten zergapekoek bide telematikoak eta sinadura elektroniko balioztatua erabiliz aurkeztu beharko dute 353 eredua.

Amaierako xedapena.

Foru agindu hau 2009ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

Donostia, 2008ko abenduaren 29a.—Pello Gonzalez Argomaniz, Ogasuna eta Finantza Departamentuko foru diputatua.